

Euskara eta Euskara

Egia esan, artikulu hau idazteko garaian, bi idatzi nituen. Lehenengoa ez nuen bukatu; bigarrena bai. Baina gogorregia zen. Agian egia da errealistak izan behar dugula mundu honetan, herri honetan. Baina errealistak izanik, ez al ziren filosofia, ideologia, pentsamendu eta nahikunde guztiak pikotara joango?

Baina egia da, euskararen egoera Lezon negargarria dela. Negargarria, penagarria eta sinestezina.

Askok ez dakite, baina Lezo Euskal Herria da. Kanpotik extraterrestre erdaldun asko etorri zaizkigu. Gehienak hemen lana dutelako daude. Bestela korrika joango ziren beren herrietara. Ez duzue inoiz entzun: "Sí, en vacaciones nos vamos al pueblo; ¿tú no vas al pueblo?".

Bai, askok ez bait dakite gu hemengoak garenik. Baina... guk ba al dakigu?

Uste dut asko garelako gure herrian, hemen, jaiotako extraterrestreak. Asko.

Egia ere esan behar da, asko direla ere gure herrian benetako euskaldunak (egia esan, ez hainbeste). Euskaraz hitzegiten dutenak; euskaraz irakurri eta idazten dutenak; euskaraz poteatu eta euskaraz maitatzen dutenak; den dena euskaraz egiten dutenak; EUSKARAZ PENTSATZEN DUTENAK; eta, goraipatzekoa den gauzarik garrantzitsuenak, EUSKAL HERRIA euskaraz maitatzen dutenak, gure herri hau EUSKALDUNek osatzen duten (edo osatu behar luketen) herri bat bezala. EUSKALDUN hitzak ez du beste esanahirik "euskara dun" pertsona izan ezik. (Espezia hau non dagoen galdetuko duzue. Ba, badago).

"Vasco" dela, edonork esan dezake. "País Vasco"-n jaio den edonork. Nahiz eta euskaraz deus ere ulertu ez. Eta hori, hi, kriston fardea duk! "Vasco" hitzak esanahi asko eta desberdinak ditu, segun eta norentzat. Euskaldun hitzak, aldiz,

bakarra.

Zenbat aldiz abestu dugu Oskorriren kanta "euskara da euskaldun egiten gaituena"? Beno, ba, has gaitezen hortik. Denok euskaraz hitzegiten badugu, beste gauza guztiak ondoren etorriko dira, konturatu gabe. Mundua aldatu nahi baduk, hasi hadi lehenengo hire buruarekin. Lortzean, hire herria aldatzen hasi.

Esan bezala, Lezo, lehen Euskal Herria zen, eta oraindik ere baldin bada,...ikus dadila.

Horretan denok egin behar dugu lan. Egin dezagun benetako herri euskaldun bat guztion artean!

Eta kanpoko extraterrestreek (batzuek euskara ikasi zuten; txalo bat hauentzat) extraterrestre izaten jarraitu nahi badute, nahiko larri ibiliko dira bertakoak, gu egunero eta beti euskaraz mintzatzen bagara.

Lezoko extraterrestreei, berriz, toke bat eman beharko zaie. Euskaraz baldin badakite, ba...erabil dezatela!

Erdara eta euskararen artean ezberdintasun bi bakarrik daude: euskaraz askoz ere ederragoa dela, eta gure hizkuntza dela. Eta penagarria da azken hau hainbeste aldiz errepikatzea.

Mikel SUSPERREGI